

<http://ikas.eus/spip.php?article826>



Ixo

- Baliabide pedagogikoak - Literatura formatu digitalean - Olerkia - Olerkiak - Luixa Giltzu - Haizea -



Linean argitaratua data honetan: 2010(e)ko abenduaren 22a

Copyright © IKAS Euskal Pedagogia zerbitzua - Eskubide guztiak

erreserbatuak

*Xo, entzun haize sortzaileak :
esku-haize* liluragarria, xifli-xafla,
hauspoa puf, puf, puf.*

*Xo, batzuek orroaz dabiltza
elektrikaren indarrez :
ile xukatzailea uuu,
haizagailuari esker bero arina.*

*Xo, han da haizearen indarra
errotaren hegatzetan,
errotatxoen itzulietan
errota eolikoen hertze elektrikoetan.*

*Xo, begira ! haize-zorroa,
gorri, xuri, airean dantzan,
enbata eta haize beltzak
haserretzean.*

*Begiratzen dakienak
haizea ikus dezake,
nahiz eta gardena izan !*
Luixa Giltzu 2007/03

* esku-haize : haizemaile